

Aprilekoa



Apirilekoa

irudiak:

IRRIMARRA ilustrazioa

ipaina:

Yolanda Arrieta



BOOKTEGI

Guztion liburua, guztiontzat

booktegi.eus

Kukulumitxo hain zen txikia, haizeak eramaten zuen eskolara,
autobusaren ordeaz.

—leeeepaaa!

Bizkorregi iristen zen, ordeaz, eta loak hartzen zuen lagunak iritsi
baino lehen.



Lotan nago, begiak itxita.
Lotan nago, begiak itxita.
Klin! eta klin! Baietz amets egin!
Klin! eta klin! Baietz amets egin!

Lagunek ez zuten ikusten han
zegoela. Tropelean sartzen ziren
guztiak batera eta egunero
zapaltzen zioten zer edo zer.

—Kontuzz! Nire belarriaa! Kontuzz!
Nire eskuaa! Kontuzz! Nire ipurdiaa!



Bost urte bete zituenean, burdinazko zapatak oparitu zizkioten:

—Ea zapata hauekin lurrera itsasten zaren...

Baina, orduan, Kukulumitxo beraaandu heltzen zen leku guztietara; ia-ia etxera bueltatzeko garaian.

—Meriendatzeko orduan, eskolara? Motel!

—Eskeeee...



Sei urte bete zituenean, gurpilak jarri zizkieten zapatei:

—Ea pixka bat azkartzen zaren...

Baina, orduan, Kukulumitxok, aldapan gora hastean, irristatu eta atzerantz egiten zuen.

Aldapan beheara hastean, ordea, abiada bizi-bizian jaisten zen, autoak baino arinago, ia-ia hegazkinak bezalaxe.

—Alde pareetarik! Banoaaaaaa!



Hala zebilen, bada, egun batean, danba!, farola
bat jo zuen arte.


—Aiiiiiiiiii!

Medikuak pomadaz igurtzi zion kopetako koskorra:

Senda mina,
putz urdina.

Joan da, joan da
zure mina!

Baina kopetako koskorrak luuuuuuze iraun zuen.




Zazpi urte bete zituenean..., badakizue zer gertatu zen? Gurpildun oinetakoak kendu eta liburu bat oparitu zioten:

—Ea honekin zure indarrak neurtzen ikasten duzun...

Eta, gauzak nola diren, Kukulumitxok besteekin ibiltzeko era mordo bat ikasi zuen, liburuari esker.

Apiril batean izan zen.

Apirilean, liburuen hilabetean...





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu